

## ABALAREN AGIRI-EREDUA

Kreditu-erakunde edo elkarren bermerako sozietate honek: .....  
—IFZ:.....; helbidea: .....—, eta, haren izenean, (ahaldunaren izen-deiturak)..... jaunak/andreak, zeinek, Gasteizko Udaleko Idazkaritzan (noiz:) ..... askietsitako ahalordea dela medio aski ahalmen baitu egintza honetan hura horretara behartzeko,

## ABALA EMATEN DIO

Abal-hartzaile honi: ..... —IFZ edo NAN: .....—, Gasteizko Udalaren aurrean —abalaren zenbatekoa: ..... euro; kontzeptua: ..... **(abal-hartzaileak bere gain hartutako kontratuaren xedea edo obligazioa zehaztu, eta baldin badago, dossier-zenbakia adierazi)**—.

Entitate abal-emaileak Gasteizko Udalaren aurrean erantzungo du adierazitako diru-kopuruaren ordainketaz, horretara behartuaren lekuan eta baldintza beretan, eta berariaz uko egiten dio Kode Zibilarren 1830. artikuluan jasota dagoen eskusio-eskubideari.

Abalaren kontra jotzeko beharrik izanez gero —horren bitartez emandako bermea gauzatzeko—, abala eman duen entitatea behartuta egongo da zortzi eguneko epean, jakinarazpena helarazten zaion egunetik kontatuta, bermatutako kopuru osoa edo dena delako zatia Gasteizko Udalaren Diruzaintzan eskudirutan sartzera.

Abal hau indarrean egongo da harik eta Gasteizko Udalak edo haren izenean hori egiteko legez gaituta dagoenak bertan behera utzi edo itzultzea erabaki arte.

Abalen Erregistro Bereziko inskripzio-zenbakia:  
(lekua eta data) ....., .....

Izenpea:  
**(ahaldunak).**